

ELIKADURA BURUJABETZAREN BIDEAN, egian **BESTE URRATS BAT?**

Azken hilabete hauetan, Elikadura Burujabetzaz kezkatu gauden Egiako zenbait pertsona kointziditu dugu eta **hausnarketa-prozesu xume bat** hasia dela ikusi dugu. Egian jadanik abiatu dauden zenbait esperientzia aberasgarri kontuan izanik, ahal den neurrian sinergiak bultzatuz eta inor ordezkatu gabe, beste **urratsen bat** eman daitekeela sinetsita gaude.

Urrats berriak eduki ditzakeen ezaugarriak marrazteko asmoz, ireki berri duten **Labore Bilbo proiektuaren dekalogo**a moldatu dugu. Honek hasiera besterik ez du izan nahi, beraz, erabat moldagarriak dira!

1. BERTOKO PRODUKTUAK ESKAINTZEA.

Adituek diotenez, gaur egungo elikadura-sistema irrazionalak jakiak milaka kilometrotara sortzera garamatza. **Gertuko produktuak bultzatzea da gure apustua.**

2. GARAIKO PRODUKTUAK ESKAINTZEA.

Logikara itzuli behar dugu. **Garaian garaiko produktuak ekoiztu eta kontsumitzea berrohitu behar dugu.**

3. ELIKADURA NEGOZIOA IZATETIK ZERBITZUA IZATERA PASATZEA.

Elikadura, oinarrizko beharrezko izan arren edonorentzat, **negozio izugarria bilakatu da** kapitalismoarentzat. Guk **prezio justuan** eskaini nahi dugu elikadura.

4. SALMENTA ZUZENA BIDERATZEA.

Bitartekaririk gabeko zerbitzua eskaini nahi dugu, baldintzak *Monsanto* edo *Carrefour* bezalako multinazionalen ezarri ordez **ekoizle eta kontsumitzaileen arteko ALIANTZA saretu nahi dugu.**

5. KALITATEZKO PRODUKTUAK ESKAINTZEA.

Gure eta ingurugiroaren osasuna zaindu asmoz, pestizida, hormona edo produktu kimikoen ordez, **ekoizpen ekologikoa** lehenetsiko dugu.

6. ZERBITZU ERRAZA ETA ERAKARGARRIA EMATEA.

Presaka bizi garen jendarte honetan, **zerbitzu erakargarria eskaintzea** da gure asmoa. Hala ere, argi dugu arrazoizko kontsumo honek esfortzu txikiak eskatuko dizkigula.

7. HERRITARROK PROIEKTUAREN LOKOMOTORRA BIHURTZEA.

«Inork iraultza egin nahi badu, hiru aukera ditu egunero: *gosaltzerakoan, bazkaltzerakoan eta afaltzerakoan*» Vanadan Shiva ekofemenistaren esaera da hau. Gure helburua **arrazoizko ekoizpen/kontsumoa hegemonikoa bihurtzea da**, has gaitezen norberetik, antola ditzagun herritarrak, eragin dezagun jendartean.

8. ETORKIZUNA GURE ESKU EGONGO DELA BERMATZEA.

Azken hogeita hamar urteotan, Euskal Herriko nekazaritza batez beste % 70 gutxitu den bitartean, bazter guztietan hedadura handiko supermerkatuak zabaltzen ari dira, **Elikadura Burujabetza burujabetza politikoaren oinarri eta zutabe bilakatzen ari zaigu.**

9. BESTELAKO JENDARTEA ERAIKITZEKO EKIMEN KOLEKTIBOA.

Elikadura, bakar batzuen negozioa izan beharrea, kolektiboki antolatutako kontsumitzaile eta ekoizleen arteko **zerbitzua bihurtuz, ekarpen baliotsua egingo genuke bestelako jendarte eraikitze bidean.** Esan nahi baita, elikadura izan daiteke, besteak beste, gizartea eraldatzeko bide praktikoa eta eredu zehatza.

10. AMA LURRA IRMOKI DEFENDATZEA.

Errekurtsoak mugatuak dauzkan Ama Lurra defendatzea ez da kapritxoa edo apeta, ezinbesteko eginkizuna baizik. Izan ere, etorkizunaren aldeko apustu erabakigarriak da.

Hitzordua: Urtarrilaren 8an 19etan Txondorran